

GO!AZEN telesailaren castingean parte hartzeko baldintzak

EITB Euskal Komunikazio Talde Publikoak (aurrerantzean, EITB) –helbidea: Basurtuko kaputxinoak 2, 48013 Bilbo–, PAUSOKA ENTERTAINMENT, SL ekoizpen-etxearekin batera, **GO!AZEN** telesailaren atal berriak ekoiztea aurreikusi du. Castingaren lehen fasean, telesailaren parte hartu nahi dutenek bidalitako bideoak eta materialak (aurrerantzean, materiala) jasoko dira. Ondoren, bigarren fasea abiaraziko da: aurrez aurreko castinga.

Jasotako materiala eta aurrez aurreko castingean grabatutako irudiak (aurrerantzean, grabaketak) hirugarrenei laga ahal izango dizkiete EITBk eta bere mendeko sozietateek.

Halaber, bidaltzaileak hurrengo hauek bermatuko ditu:

- Materiala zuzenean bidaltzaileak lortu duela, materialaren gaineko eskubideen jabetza eta kontrola dituela eta agiri honetan zehaztutako baldintzetan EITBri lagatzeko gaitasuna duela.
- Materialaren edukiaren artean ez dagoela inolako pertsona, enpresa edo elkarterentzako difamaziorik, irainik edo kalumnariarik, eta ez dituela hirugarrenen jabetza intelektualeko, jabetza industrialeko edo bestelako eskubideak urratzen.
- Eskubide-lagapen hau gauzatu ahal izateko, materialean agertzen diren pertsonen baimenak dituela.
- 16 urte baino gehiago eta 23 baino gutxiago dituela.
- Ez dela EITBren edo horren mendeko sozietateen langilea.
- Materiala egiazkoa eta benetakoa dela.

EITBk materiala eta grabaketak ez hedatzeko eskubidea du.

Bidaltzaileak emandako datu pertsonalak EITBNET, SAUren (EITBNET) titulartasuneko *GIZARTEAREKIKO HARREMANAK* izeneko fitxategian gordeko dira, baita PAUSOKA ENTERTAINMENT, SLk helburu horretarako prestatutako fitxategian ere, telesailaren castingaz eta ekoizpenaz arduratuko baita.

Fitxategiaren helburua EITBren hedabideetan argitaratzeko eta/edo emateko jasotako materiala kudeatzea izango da. Datuak Babesteko Lege Organikoak erregulatzen dituen datuetara sartzeko eta horiek zuzentzeko, ezeztatzeko eta aurkarazteko eskubideak baliatzeko, gutun bat eta NANaren fotokopia bidali beharko dira EITBren Departamentu Juridikoaren Zuzendaritzara (Basurtuko kaputxinoak 2, 48013 Bilbo).

Agiri honetan adierazitako baldintzaren bat bete ez duelako erreklamaziorik sortzen bada, bidaltzailea izango da erantzule.

EITB, 2016ko maiatzean